



Siria eta ekialde Hurbileko gatazka

Gako historiko eta geopolitikoak



0.

Sarrera

Dokumentu honek Ekialde Hurbileko gaur egungo egoeraren gaineko azterketa bat eskaintzen du, batez ere Sirian piztutako gatazka politiko-militarraren inguruan eratu den interes sare konplexuaren inguruko azterketa bat.

Gure iritziz, herrialde horretan, eta oro har, planetaren alde horretan gertatzen ari dena hertsiki loturik dago sistema kapitalista-inperialistaren berrantolaketaren problematika orokorrarekin. Horri, ingurune zehatz horren historiaren eta izaera geoestategikoaren berezitasunak gehitu behar zaizkio, halaber.

Zentzu horretan, lehenik estatubatuar inperialismoaren hegemoniak bizi duen krisian sakonduko dugu; bai eta buru bakarreko sistema batetik hainbat burutako beste sistema baterako


igarobidea oztopatzeko aurrera daraman estrategian ere.

Ondoren, Ekialde Hurbileko herrien historia garaikidean izandako inflexio puntuei begiratuko diegu, izan egitasmo inperialistei, zein haren aurkako erresistentzia eta herri langileen proiektuei.

Azkenik, siriar herriak bizi duen gaurko une historikoari jarriko diogu arreta, hain zuzen, ingurune hartako zein mundu mailako interesen talka gordinki gauzatzen den eskenatoki gisa.

Askapena

Euskal Herrian, 2016ko martxoan



1.

Mundu mailako kapitalismoaren berrantolaketa: erasoaldi inperialista eta multipolaritatea



Bigarren mundu gerraren ostean inperialismoaren bihotza Europar Batasunak, Japoniak eta Estatu Batuek osatzen zuten hirukotea zen (azkena izanik buru); gainera, Sobietar Batasuna erori zenean, Estatu Batuak bihurtu ziren munduko superbote bakar, behin gerraosteko bipolaritatea gaindituta. Orduetik, haiek gidatu dute proiektu neoliberalak.

Izan ere, EEBBek azken hamarkada bietan botere ikaragarri handia metatu dute, historian beste inoiz ezagutu ez dena bestalde, eta zuzenean lotzen zaiona bere hegemonia militar eztabaidaezinari. Egun, bere gastu armamentistikoa munduko gainerako herri guztienaren parekoa da ia eta mundu zabalean zehar 1000 base militar inguru edukitzeaz gain, (horietako ia 300 Europan) 130 herrialdetan dihardu misio militarretan. Era horretan, nazioarteko erakundeak (NBE, NDF etab.), Japonia eta Europar Batasuna bezalaxe, EEBBetako gobernu nahiz egituraketa militar-industrialaren menpe gelditu dira. Menpekotasun interesatu horrek baina, tokian tokiko goi mailako klaseen onespena du, zaindari estatubatuarrek eta haiek interes estrategiko berdinak dituztelako eta menpekotasun horren trukean, gero eta transnazionalagoak diren goi klaseek babes baliotsua jasotzen dutelako.

Estatu Batuek ekonomikoki toki garrantzitsuena betetzen dute munduan, bai mundu osoko finantza sistema garrantzitsuenaren jabe izateari esker, bai nazioartera asko zabaldu diren eta hainbat sektoreen buruzagitza daukaten enpresei esker (berrikuntza teknologikoa, esaterako). Dena den, aldi berean, AEB mundu osoko zordunik handiena ere bada, lehen ez bezala; eta bere komertzioak gero eta defizit nabarmenagoa du. Gainera, lehiakortasunari eta ekoizpen ahalmenari dagokienez ere, beherakada nabarmena jasan du azken urteetan. Hori dela eta, Estatu Batuek euren nagusitasun ekonomiko ahaltsua galdu dute, orain arte nagusitza militarra eusteko balio ziona. Orain boterearen oinarriak aldatu egin dira eta indar militarra da gainbehera ekonomikoa orekatzen duena. Gaur egun, nagusitza estatubatuarra ez da XX. mendeko lehen erdian bezain erabatekoa eta eztabaidaezina.

Etengabe handitzen joan diren kontraesan horiek ekarri zuten oraingo krisiaren hasiera, AEBko finantzen erdigunean bertan lehertu zena. Izan ere, finantza krisiaren kate-erreakzioa AEBko inbertsio banku handienetako batzuen porrotetik abiatu zen (Lehman Brothers, Merrill Lynch, etab.); mundu osoko finantza sistemaren giltzarri zirenak. "Subprime" edo "zabor-hipotekak" zeritzuzen krisiak laburbiltzen du oro har kapitalismoak eta bere

eratorpen neoliberalak bere-bereak dituzten epe laburreko etekinekiko itsukeria, zakuratzeko grina eta bideraezintasuna. Eta horixe da Estatu Batuek bultzatu duten ikuspegi ekonomikoa, batez ere 70eko hamarkadaz geroztik.

Izan ere, 70. hamarkadan aberastasunen metaketarako eta dominaziorako ezarritako ardatz nagusiek bat egiten zuten era guztietako finantza transakzio espekulatiboekin, patronalak eta Estatuak bultzatutako esplotazio mailaren igoerarekin eta mailegu eskaintza maltzurak lagundutako kontsumismo arduragabearekin. Horrela sortu zen gaur egun jasaten ari garen egiturazko krisialdia; pobretutako gizarte kontsumista baten gehiegizko zorpetzeak jasangaitz bihurtzen zuen sistema oso batek eztanda egin zuenean, 2007an zehar. Beraz, krisialdian dagoena sistema bat da, sistema kapitalista hain zuzen ere. Hain zuzen, bere azken berrantolaketa saiakerak, hots, neoliberalismoak, ederki erakutsi du, zakuratzaillea eta suntsitzaillea izateaz gain, bideraezina ere badela.

Mundu osoko eta EEBBko egituraketa inperialistaren barne arazoei, gainera, joera negatiboa areagotzen duten beste hainbat alderdi gehitu behar zaizkie.

Alde batetik, ingurumenaren eta energiaren krisia bera dugu. Horrek gero eta zailago eta garestiago bilakatzen du, politikoki eta ekonomikoki, behar ditugun lehengaiak ustiatzea nagusi den bizimodu kontsumista, arduragabe eta harrapakaria mantentze aldera; besteak beste, petrolio, gasa, ura, mea edo mineral estrategikoak...

Beste alde batetik, BRICS deiturikoen agerpena oso esanguratsua izan da, batez ere Errusia eta Txinaren gorakada politiko eta ekonomikoarengatik. Azken hori, halaber, berehala izango da munduko lehen ekonomia, egungo joerak mantentzen badira. Era horretan, yankien presioaren gainera, botere harremanak aldatzen dituzten aurrekaririk gabeko mugarririk jarri ditu Txinak, zama politiko, ekonomiko handikoak direnak ez bairik gabe: Elkarlanerako Shanghaiko Erakundea, Asiako Inbertsio Bankua eta Zetaren Bide Berria. Era berean, nahiz eta lehen agintaldian zuhurrago jokatu, Putinen jarduna

Errusiaren burujabetza eta nazioarteko lehian galdutako pisua berreskuratzera bideratuta egon da. Yeltsinen garaiko morrontza lotsagarritik behin betiko irtenez, Europa eta Asia batuz, balizko ardatz estrategiko berri baten oinarriak ipini ditu (Pekin-Mosku-Berlin), hankaz gora jar lezakeena AEBek Europan, eta hein handi batean, mundu osoan, daukaten agintea.

Testuinguru horretan dago kokatuta azken hamarkadan honetan gauzatu den inperialismo yankiaren kontraeraso ekonomiko, politiko eta militarra.

TTIP/TTP eta OTAN

EEBBko inperialismoak krisian dagoen bere proiektu politiko-ekonomiko neoliberalak sakondu nahi luke Atlantiko eta Pazifikokoaren bi aldeetara merkatu libreko gunea bermatuz (TTIP eta TTP). Hain zuzen, estatubatuarrak eta bertako transnazionalak negoziaketetan ari dira Asia zein Europako estatuarekin babes politiko-ekonomiko estrategikoa gauzatzeko, batetik, kapitalismo neoliberalak sakontzeko eta bestetik, gorantz datozen estatuak kontutan hartuz (batez ere Txina eta Errusia) estatubatuarren interes geopolitikoak nazioarte korapilatsuan babestea du helburu.

“Hitzarmen hauen helburu nagusia Errusia eta Txina politikoki zien ekonomikoki inguratzea da, euren eragin eremua mugatuz eta Europar Batasunarekin egin dezaketen gerturatze estrategiko oro saihestuz”

Hitzarmen hauen helburu nagusia Errusia eta Txina politikoki zien ekonomikoki inguratzea da, euren eragin eremua mugatuz eta Europar Batasunarekin egin dezaketen gerturatze estrategiko oro

saihestuz. Bide honetan, ez da harrizkoa Hillary Clintonenek berak ohiko duen zinismo eta harrokeriaz, TTIP hitzarmena, OTAN ekonomiko bezala aurkeztea.

OTAN egitura bestalde, makinaria politiko militar izarra, mundu mailako berrantolaketa hau EEBB en interesetara egin dadin ziurtatzeko baliatzen ari dira. Hain zuzen ere, bloke sozialista eraitsi zenetik, OTANek, bizi-bizirik irauteaz gain, kide gehiago bildu ditu bere jardun bidegabea sendotzeko (Montenegro batu zaio). Gainera, bere eraginpeko eremua zabaldu egin du; nonahi eskua sartzeko bere *eskubide jainkotiarra* erabiltzen duen bitartean, isilpean nahiz agerian. Ekialdeko Europan 90. hamarkadan ezartzekoa zen kapitalismo basatia bultzatzeko, Jugoslavia zaharraren aurkako bonbardaketekin hasi zen bere jardunbidea, eta Iraken, Afganistanen eta Libian jarraitu zuen, beti ere toki bakoitzeko lehengaiak zakuratzuz. Era horretara, NATO bloke kapitalista-inperialistak behar duen tresna politiko-militarra da, martxan jartzen duena, bere mundu mailako nagusitasuna mehatxatu edo zalantzan jar lezakeen edozer eragozteko desiran.

Ildo horretan egin zen, Galesen, joan zen iraileko OTANen goi bilera, non, hazkundean dauden potentzia berriak geldiarazteko eta desaktibatzeke estrategia adostu zen. Horretarako, gastu militarra handitzea, eraso eta hedatze bizkorreko indar berri bat sortzea eta, hori gutxi balitz, 2015-eko amaieran maniobra erraldoiak abiaraztea erabaki zen (*Trident Juncture*). Goi mailako militarren ahotan "Europan 1944-tik gaur arte martxan jarritako lurreko, aireko eta itsasoko indarren mobilizazio handiena" ekarriko dute ariketa militar horiek. Begi-bistakoa da inperialismoaren adar armatuak giharrak berotu nahi dituela, bere erasoaldiko hurrengo urrats estrategikoak eman ahal izateko.

Erasoaldi honen norabidean kokatzen da EEBB Txinaren bizilagun edo gutxienik haien eragin eremuen baitako estatuekin sinatu berri dituzten hitzarmen militarrek (Singapur, Filipinak, Australia, Hego Korea eta Japon) eta azken esku-hartze erdi ezkutatuak Ekialde Hurbilean eta Ukrainian.

Ukrainiako gertakarietan esaterako, EEBB ek estatu kolpe bat prestatu zuen lehenik eta neonazi eta neoliberal ortodoxoen arteko taldea gobernura bultzatu, ondoren. Modu honetan, Errusia militarki inguratzea lortu du, euren mugeteraino iritsiz, OTAN en zabalkunde proiektua amaitutzat emanaz. Bestalde, Europar Batasunak gaur arte estatubatuarren planteamendu guztiak ase bete baditu ere, epe ertain-luze batera, EB eta Errusiaren arteko harreman oro galarazi nahi du, ekonomikoki Errusiari isunak ezarriz eta militarki Estonia, Letonia, Lituania eta Polonian soldaduak eta armamentu erakustaldiak burutzuz.

Azkenik, Ekialde Hurbilean EEBB ek OTANen eskutik inguru guztia ezegonkortze etengabean dihardu (Kaos kontrolatu), bere eskura dituen baliabide guztiak erabiliz: barne tentsioak sortuz, zein gerra zibilak piztuz historikoki giltzarria den eremuan, mundu mailako kontrol politiko ekonomikoa baliatzeko.

Eremu honetan jokoan dauden interes guztiak sakonago ulertzera bidean, nola elkar lotzen diren eta mundu mailako norgehiagoka geopolitikoaren eskenatoki bezala nola gorpuztu den, modu eskematikoan bada ere, zonalde honi dagokion historia garaikidea ezagutu beharrean gara.



2. **EKIALDE** **HURBILA:** **ohar historikoak**



Egungo Ekialde Hurbileko egoera ulertzeko, zalantzarik gabe, kontutan izan behar dugun lehenengo eta berebiziko momentu historikoa, Lehen Mundu Gerra da. Hain zuzen ere, gudu inperialista horren ostean, kontinente europarraren eta asiarraren arteko bisagra zonalde horretan, garaile izan ziren potentziek egun ezagutzen ditugun Estaturen muga artifizialak inposatu zituzten. Ordurako konfirmatua zegoen eremu hori, petroliodun zonalde aberatsa zena. Haatik, “gudako altxor” hori, protektoratuetan eta influentziazko eremuetan banatu zuten. Horrelaxe, 1916eko *Sykes-Picot Akordioa* dela-eta, Britainia Handia eta Frantziak isilpean bereganatu zituzten garaitutako Inperio Otomandarraren lurraldeak; Palestina, Jordania eta Irak britainiarren esku gelditu ziren, eta Siria eta Libanoko zatirik handienak berriz, frantziarren eskuetan.

Bestalde, 7 urte geroago, 1923an, *Lausanneko Tratatuak*, beste zenbait erabakiren artean, herri kurdua lau administrazioetan banatu zuten (Turkia, Iran, Siria eta Irak), egun oraindano nazio honen batasuna eta existentzia bera ukatzen dietelarik. Ondorioz, Lehenengo Mundu Gerraren amaieran potentzia europar inperialistak erabat murgilduta zeuden lurralde eremu honetan, eta herri osoen (arabiarrek eta kurduak) zatiketa politiko-administratiboak gauzatu zituzten euren interes kolonialen arabera.

Bigarren inflexio puntua, Bigarren Mundu Gerra amaitu ostean kokatu zen, eta lurralde honen etorkizuneko garapenerako ezinbesteko bost aktore gehitu ziren.

Alde batetik, potentzia irabazleek lur palestinarretan Estatu Kolonial berri bat sortu zuten: Israelgo Estatuak. Ideologia arrazistan eta kolonialistan oinarritua, mendearen hasieran garatua, eta Britainiar Handia ingurunean murgildu zenetik bultzatua (Balfourreko Deklarazioa, 1917an). Sionismoa, falazia baten gainean oinarritutako doktrina da “herririk gabeko lurra, lurrik gabeko herriarentzat” deiturikoan, eta honela, kosta ala kosta, odolez eta malkoz, Israelgo Estatuaren eraikuntza bultzatu zuten; milaka palestinar erailaz, eta milioi bat inguru pertsona euren etxe eta lurretatik kanporatuaz, gaurdaino erbestera kondenatuz (Nakba). Orduz geroztik, Palestinar Herriaren borroka heroikoa lurraldeko gatazkan faktore garrantzitsuenetarikoa bilakatu da eta mundu arabiar osoan barna aliantzak bultzatu eta elkartasun antiinperialista sakontzea ekarri du.

Bestalde, 1946an, II. Mundu Gerraren gaineko garaipena politikoki eta ekonomikoki kapitalizatzea lortu zuten estatubatuarrek eta posizio indartsu hau baliatuz, euren mundu mailako hegemonia eta lurralde honetako hegemonia bermatzeko berebiziko izango den pakto estrategikoa sinatu zuten: *Quincy Paktua*, Saudi Arabiako monarkia absolutistarekin sinatua. Hain zuzen ere, akordio energetiko eta politiko honi esker, EEBBek alde batetik, Persiako Golkoko erregai fosiletarako esku-hartzea bermatu zuten; eta bestetik, indar handiko bazkide politikoa bermatu zuten zonaldean. Adiskide berri hau bestalde, inguru guztian Koranaren interpretazio atzerakoi eta kriminala zabaltzeaz arduratuko da: Wahabismoa.

Honela, Israelgo Estatuaren eraikuntzarekin, judaismoaren interpretazio erreakzionarioa

bultzatuko da eta bestetik, saudiei emandako babes mugagabea dela-eta, euren Islamaren interpretazio erreakzionarioa zabaltzeko aukera bermatuko die. Batean zein bestean behin haziak ereinda, mendebaldeko inperialismoak faktore ideologiko-erlijiosoa zonalde geografikoan elementu distortsionatzaile gisa sartzeari lortu zuen. Bi ezaugarri hauen bitartez, Bigarren Mundu Gerraren ostean egiazko klabe ekonomiko eta politikoak erabat nahastu zituen mendebaldeko inperialismoak eta galga aipagarria jarri zuten haien aurka herri arabiar zenbaitek abiatu zituzten prozesu askatzaileei.

Hain zuzen ere, Bigarren Mundu Gerraren ostean, olatu deskolonizatzailea hazten ari zen, herri afrikar eta arabiarren askapenerako borrorak, hain zuzen. Hauek, inflexio une garrantzitsuak izan ziren, maila ideologiko zein politikoan, izan ere, inperialismoak bere atzaparrak askatzeko inongo interesik ez zuen erakusten. Honela, 40. urte hasieran proiektu soberanista ugari jaio ziren, gero 50. eta 60. hamarkadetan finkatu zirenak, horiek guztiek Sykes Picotetik zetorren *estatu quoa* erabat mehatxatzen zuten. Proiektu hauek, aldarrikapen independentistak, sozialistak eta batasun panarabistak artikulatzen zituzten. Marko honen baitan jaio eta garatu ziren naserismo egipziarra edota siriar-irakiar baazismoa, nahiz eta hamarkadetan zehar aldaketa eta kontraesan handiak izan, egundaino bizirik mantendu dute herri arabiarren aldeko burujabetza nahia. Honegatik, Bigarren Mundu Gerra amaitu ostean, bost aktore berri baina garrantzitsu agertu ziren eremu honetan: alde batetik, EEBB, Saudi Arabia eta Israelgo Estatua; beste alde batetik palestinar herria eta proiektu soberanista antiinperialista panarabiarra.

Bi bloke hauen arteko talka Gerra Hotzaren garaian gehiago gogortu eta 70 hamarkadaren amaieran EEBBek seigarren aktore erabakigarria aktibatu zuen: jihadismoa. Egoera ezegonkortzeko subjektu garrantzitsua izateaz gain egun oraindik ari eginahaletan ari dena interbentzio inperialistaren eremu emankor honetan, eta mende erdialdean hasi zen islamismo erreakzionarioaren sustapen bezala ezaugarritzen dena. Bide honetan, 70 hamarkadaren amaieran SEBSekin alineatua

zegoen Noor Mohammed Tarakiren gobernu afganiar herrikoa, islamiar wahasabistek finantzaturiko eta estatubatuar zein Saudi Arabiak entrenaturiko mugimendu militar batek garaitu zuen. Mugimendu militar horretako kideak, Muyahidin deituak, egungo jihadistak/Al Qaeda edota Daesheko mertzenarioen aitzindariak izan ziren.

“1946an, II. Mundu gerraren gaineko garaipena politikoki eta ekonomikoki kapitalizatzea lortu zuten estatubatuarrek eta posizio indartsu hau baliatuz, euren mundu mailako hegemonia eta lurralde honetako hegemonia bermatzeko berebiziko izango den paktu estrategikoa sinatu zuten: Quincy Paktua, Saudi Arabiako monarkia absolutistarekin sinatua”

Hamarkada honen amaieran bestalde, ezin ahaztu dugu lurraldean giltzarri izan den potentzia baten gorakada, Irango Errepublikari Islamiarra, Sha-ren Erregimena garaitu ostean (1979) eratutako errepublika. Iran ordura arte, inperialismo yankiaren bazkide nagusienetarikoa izan zen (Israel eta Saudi Arabiarekin batera); aurrez, Mohammad Mosaddeqen gobernu herrikoiauren aurka kolpe militarra eman ondoren (1953an), honek, petrolioaren nazionalizatzeko ausardia izan ostean. Honela, 1979. urtea inflexio une esanguratsua izan zen mundu mailako eta lurralde mailako botere

Siria eta ekialde Hurbileko gatazka. Gako historiko eta geopolitikoak

harremanetan, chii konfesiokoa zen Irango Iraultza Islamiarra egituratu baitzen. Petrolio erreserba aberatseko herrialdea izanik, posizio antiimperialista eta antisionistak barnebiltzen dituen pentsaera honek, Arabia Saudik sustatutako ideologia sunita wahabistari oztopo nabariak jarri nahi dizkio zonaldean.

Azkenik, garatu berri dugun ibilbide historiko garaikide hau amaitzeko, gerora egungo estrategia imperialistaren oinarriak finkatu zituen gertakari historiko garrantzitsu bat aipatu beharra dago: 2001eko irailaren 11eko atentatuak. Izan ere, etsai berri baten sorrera (barneko eta aldi berean kanpo mailakoa dena), borroka antiterrorista maila ideologikoan zein militarrean erabat zabaltzeko aitzakia paregabea bilakatu zen, azken hamarkadako politika nazional eta internazionalako zutabe nagusi bilakatzeraino.

Atentatu horren harira sortu ziren Ekialde Hurbilean egun garatzen ari diren interbentzioen baldintza eta justifikazio garrantzitsuenak. Honek, nazioarteko harremanen militarizazioa ekarriko du, “prebentziozko gudaren” diskurtso orojakilea ezartzea edo “borroka anti-terrorista” eta “interbentzio humanitarioa” gisako diskurtsoak gailenduko dira. Denak hala denak, EEBBek sustatuak izan arren, apenas arrakala txirik gabeko bloke imperialista osoan gailendu ziren.

Lurraldearen historia garaikidearen kontaketa eskematikoa egin ostean, duela bost urte zabaldu zen eskenatoki berrira egokitu beharrean gaude jarraian, “Udaberri Arabiarrak” deiturikoetan alegia. Izan ere, beronen amaiera tristean sustraitzen baita, egun zabalduetako konfrontazio aroa, Siria izanik haren erdigune nagusia.



3.

Altxamendu arabiarretatik Ekialde Hurbileko kaos geopolitikora



2011aren urte hasiera garrantzitsua izan zen oso Afrika Iparralde eta Ekialde Hurbilean izan ziren altxamendu demokratiko ezberdinengatik. Mobilizazio hauek herrialdez herrialde zabaltzen joan ziren, izan ere horietako askok ezaugarri politiko (diktadurak) eta sozial (pobrezia, langabezia,...) antzekoak zituzten, denak ere sistema kapitalistaren menpe zeuden eskualdean. Azterketa honetan sakonduko ez dugun arren, garrantzitsua da gogoraraztea saharar herriaren borroka antkoloniala izan zela mugimendu hauen aitzindaria, hain zuzen, 2010eko azaroan Gmeim Izik Duintasunaren kanpalekuaren antolaketa eta haren defentsa alegia.

Aipatu bezala, 2011 hasieran Tunisia eta Egipton herritar altxamendu masiboak izan ziren eta ondorioz agertoki politiko eta sozialera milaka herritar gehitu ziren estreinekoz. Guztietan aldarrikapen demokratiko, antiinperialista eta sozialak lehen lerroan zeuden nahiz eta oso mugimendu heterogeneoa izan sozialki, politikoki zein ideologikoki. Matxinada hauek historikoak izan ziren, bai kontra egiten zieten gobernuen pisuagatik (inperialismo yanki eta europarraren titeren ziren diktadurak), baina baita altxamendu hauek izan zuten pisu herritar eta gazteen parte hartzeagatik ere. Mobilizazioek orokorrean "ogia, askatasuna eta duintasun nazionala" aldarrikatzen zuten. Hauek hartu zuten potentzialitate eta indarra aintzat hartuz,

mendebaldeko inperialismoak eskualde osoarentzat estrategia berri bat diseinatu beharrean zen. Bi herrialdeetan, Ben Ali eta Mubarak agintetik bota ostean, herrialde hauetako goi-klaseek potentzia inperialistekin batera antolaketa falta nabaria zuten altxamendu herritar hauen gidaritza hartu lortu zuten, haserrealdiak instituzionalizatuz eta barne aldaketa txikiak proposatuz (Tunisian hauteskundeak ez egotetik, hauteskundeak egotera adibidez), oinarrian, ezer gutxi aldatzeko. Tunisia eta Egipton nolabait gizartearen egonezin herritarra baliatzen jakin eta boterera iritsi ziren gobernu islamistak. Laster batean ordea, herrialde hauetako elite politiko eta ekonomikoek berriz berreskuratu zuten agintea (Egiptoren kasuan Estatu kolpe bat eman zuen junta militarrek).

Krisi politiko honen aurrean, estatubatuar eta euro-inperialismoaren esku-hartzea ez zen soilik politiko-diplomatikoa izan, militarra ere izan zen herrialde zenbaitetan, Libian esaterako. Aurreko hamarkadan Afganistan eta Iraken egin bezala, gerra fronte berri bat zabaldu zuten honetarako. Libian NATOren esku-hartze militarra gauzatu zen, inperialismoak kontraeraso bidegabea burutu zuen eskualde honetan, zutabe politiko-militar estrategiko berriak ezarriz. Afganistanen 70. hamarkadan egin bezala, indar islamista erreakzionarioak zuzenean baliatu zituen inperialismoaren interesekin lerrokaturik ez zeuden Estatu ezberdinak suntsitzeko. Libia erasotzearen arrazoiak bat baino gehiago izan

Siria eta ekialde Hurbileko gatazka. Gako historiko eta geopolitikoak

daitezke: antzematen zaila zen gobernuaren izanik, joera panafrikarrekoa bestetik, (Afrika guztiarentzat moneta berdina ezartzearen aldeko proiektua) eta burujabetzaren aldekoa. Bestalde Libiako petrolioaren kontrol ekonomikoa bereganatu nahi zuten mendebaldeko potentziek eta ondoko bi herrialdeak (Tunisia eta Egipto) jasaten ari ziren aldaketa prozesuak kontrolatzeko baliagarria zituzten bestetik (arrazoi geopolitikoak). Azkenik, interes geostrategikoengatik ere interesgarria zen Libia, Afrikan aspalditik nahi zuten base militarra ezartzeko, modu honetan erraztasunez egitasmo inperialistak gauzatu ahal izateko NATOk Afrikarako duen agintari militarren eskutik (AFRICOM). Ezin da aipatu gabe utzi NATOren esku-hartze militarren ondoren, Libia egun, huts egindako estatu bat dela, kaosa da nagusi bertan eta talde armatu eta milizien artean enfrentamenduak etengabeak dira luraren kontrolerako.



Gerra-pizte honek Iraken gertatutakoarekin antzekotasun handia izan zuen, nahiz eta gobernu autoritarioak izan eta burujabetzaren inguruan planteamendu argirik ez erakutsi, nolabaiteko aurrerapen nabariak eginak zituzten arlo sozial, ekonomiko eta kulturaletan, honegatik guztiagatik herritarren babesa ere maila nahiko handikoa zuten. Azpimarratzekoa da zentzu honetan, Libiak, Irakek eta Siriak, nahiz eta modu kontraesankorreak eta edulkoratuak izan, oraindik nazionalismo antiinperialista aldarrikatzen jarraitzen zutelako.

(aurretik aipatu bezala, nahiz eta nazionalismo honek eskualde osoan 60. hamarkadan izan momentu gorena).

Hau guztia kontutan hartuz, Siriako Errepublika Arabiarra ere herrialde multzo hauen barruan aurkitzen da; ibilbide historiko kontraesankorra, babes herritar esanguratsua, gizarte politika aurrerakoa eta gutxiengo etniko eta erlijio-minorien integrazio nahia, dena den guzti hau autoritarismo zantzu handiekin (1963tik 2011raino "salbuespen" egoeran izan zen). Bestalde, azken hamarkadako apustu neoliberalaz gain (pribatizazioa eta kapital transnazionalaren inbertsio/esku-hartzea bultzatzea), Siriak pisu geopolitiko handia du eskualdeko ardatz antisionista eta antiinperialista: Iran, Hezbollah eta palestinar borrokari babesa ematea da horren adierazle nagusia.

Siria beraz herrialde garrantzitsua da ikuspuntu ekonomiko eta geostrategikoan, Mediterraneo itsasora irteera du eta bestalde Persiar Golkotik etorri eta Europara doazen oliobide eta gasbide nagusiak bertatik pasatzen dira. Hori guztia gutxi balitz, Siriako desertuetan gas erreserba handiak daude, askorentzat petrolioaren ordeko nagusia izango den erregaia XXI. mendean.

Gako geopolitiko hauek (libanoar eta palestinar erresistentziari babesa), ekonomikoek (gasa) eta geostrategikoek (eremu giltzarria Ekialde Hurbilean) ongi baino hobeto erakusten dute mendebaldeko potentzia inperialistek (EEBB, Frantzia eta Britainia Handiak) zein euren aliatu lokalek (Turkia, Saudi Arabia eta Qatar batik bat) bertan duten interesa. Guztiek babestu zituzten Siriako gobernuaren aurkako aldarrikapenak 2011tik aurrera, erregimena aldatzera bultzatuz beti ere, ikuskera inperialista zale eta erreazionarioa bermatuko duten kanpo eta barneko eragileen bitartez.

“Iraken sortu berri zuten testuinguru ezegonkorra baliatzen dute estrategia inperialista paramilitar hau aurrera eramateko, politikoki, sozialki eta militarki deusezturiko herrialde honetan piztu zen giroan, milizia, borroka inter-etniko eta erlijiozkoetan aurkituko baitute gerra berri honetarako beharrezko zaien harrobia”

Honela baliatzen dute potentzia inperialistek euren intereseko eskualdean ematen den aukera (jendearen haserrea egoera politiko eta ekonomikoarekin). Ezin ahaztuko dugu bestalde, mundua, krisi ekonomiko global batean aurkitzen zela eta yankien indar hegemonikoa ahultzen hasia zela dagaeneko. Beraz, galtzen ari zen nagusitasun hori berreskuratze aldera, eskualde guzti honetan laugarren belaunaldiko gerra bat bultzatu dute indar inperialistek, talde islamista erradikal anitzei babesa, armak eta entrenamendu militarra emanez (Al Nustra Frontea, Daesh, etabar). Honetarako, Iraken sortu berri zuten testuinguru ezegonkorra baliatzen dute estrategia inperialista paramilitar hau aurrera eramateko, politikoki, sozialki eta militarki deusezturiko herrialde honetan piztu zen giroan, milizia, borroka inter-etniko eta erlijiozkoetan aurkituko baitute gerra berri honetarako beharrezko zaien “harrobia”.

Bestetik, ezin esan gabe utzi bloke inperialistaren baitan hainbat eta hainbat kontraesan eta

desadostasun ere badaudela jarraitu beharreko estrategiaren inguruan, baita klase dominante nagusia den yankien artean ere. Horrek arrazoitzen du besteak beste negoziazio eta esku-hartze militarretan ematen diren kontraesan etengabeak, baita eskualdeko Estatu nahiz talde armatu ezberdinekin egiten ari diren aliantza ezberdinen egonkortasun falta ere. Motzean esanda, elkarren arteko talka etengabea dihardute “kaos kontrolatuaren” estrategiak (Estatu siriarraren suntsiketa Libiarekin egin zen bezala) eta aspalditik ezaguna den instituzio ekonomiko eta politikoen kontrola bermatuko lukeen protektoratu neokolonialaren ikuspegiaren estrategia, modu honetan uler daiteke programa nuklearraren gainean Iranekin duten negoziazioa. Azken aukera honek eskualdeko kontrola izatea ekarriko luke, horrela tropa yankiak bertan ezartzea bermatuz Txinako Hegoaldeko Itsasoan; petrolio aberastasun handia duen eremua bereganatuz eta asiarrak potentziari militarki presioa egiteko leku ezin hobea bermatuz.

Aktore nagusia inperialismo yanki eta europarra bada ere, hauei eskualdeko aktoreak ere gehitu behar zaizkio, agenda elkar banatzen badute ere, bakoitzak bere interes propioak ere badituelako eskualdean.

Alde batetik Turkia dugu, “Udaberri arabiarrek” hasten direnetik, eskualdeko nagusitasun eta erdigune izaera berreskuratu nahi duena. Horretarako, Qatar-ekin batera, Anai Musulmanen inguruko indar suniak babestuko ditu Ekialde Hurbil guztian. Turkiak ziurtatu nahi du bere lurretatik pasako direla gasbide berri guztiak eta honez gain, Siriako egoera kaotikoa aprobetxatuz, milaka yihadistei entrenamendua eta babes zuzena ematen die historikoki Turkiaren etsaia izan dena militarki suntsitzeko; Herrialde Kurdua alegia. Turkiako Gobernuak armada handi eta indartsua du (NATOren barne ere dagoena) eta Siriako errefuxiatuen gaia baliatuz estrategia inperialistaren garapena baldintzatzen ari da gaur egun EB presionatuz, diru-laguntza ekonomiko handiak jasoz eta EBean sartzeko prozesua azkartuz. EB eta Turkiak orain dela gutxi sinatutako hitzarmen lotsagarria horren adibide garbia da.

Bestalde, Saudi Arabia dugu aktore lokal aipagarria. Honek, Siria eta Iranen arteko erlazioa behin-betiko moztea du helburu, izan ere, horrek deuseztatu izan du bere egitasmo nagusia: eskualdean ideologia suni wahabista duen kalifatu hegemonikoa ezartzea. Horrez gain, yankien babes politiko eta militarra jasotzen jarraituko duela ziurtatu nahi du eta bera izango dela eskualdeko petrolioaren salmenta kontrolatuko duena. Eskualdeko ezegonkortasuna bultzatze aldera, proba argiak daude Daesh zuzenean finantzatzen dutela saudiek, baina hortaz gain, aipagarria da Yemenen babesten duen sarraski militarra errebelde chii-en kontra. Estrategia gisa, Saudi Arabiak petrolioaren prezioa jaisteko hartutako erabakia ere nabarmena da, honekin erregai hau ekoizten duten Iran eta Errusia ahultzea lortu baitu eta baita Adengo golfotik gordinaren garraio zuzena zihurtatzea ere, Iranen kontrolpean den Ormuzetik igaro gabe.

Azkenik, ezin Israelgo Estatu aipatu gabe utzi. Honek ez baitu inoiz zalantzan izan korrante sunia babestea, izan ere, herrialde chii-ak beti salatu izan dute Israelgo Estatuaren izaera koloniala, zapaltzailea, legez-kanpokoa, eta inperialismoarekin duen hartu-eman zuzena hauen interesak bultzatzeko. Bestalde, herrialde bizilagunak bizi duten gerra egoera eta arreta mediatikoa aprobeztatzen du palestinar herria oraindik eta gehiago zapaltzeko (erailketak, bonbardaketak, kolonien hedapena,...).



Potentzia boteretsu guzti hauei aurre egiteko, Iran edo Hezbollah-ren laguntza politiko-militarra jasotzen du Siriako Errepublikari Arabiarrak (historikoki partekatzen baitu beraiekin subiranotasun erregionalaren defentsa) eta azkenaldian azpimarragarria da batez ere maila diplomatikoan Errusia eta Txinak eskainitako babesa.

Errusiak babes nabarmena eskaintzen dio Siriari (Gobernuaren eskariz) esku hartze militarren bitartez. Errusiak eskualdeko petrolio eta gas-baliabideen inguruko interes geoestrategikoa

defendatzea du helburu. Horrez gain, Siriak Mediterraneo itsasora duen irteeran Errusiak itsasontzi-base bat du (Tartus) eta leku estrategikoa da Errusiarentzat bere mugetan presentzia yanki-europarrari oztopoak jartzeko. Aipatzeko da bai Errusiak baita Txinak ere beldurrez ikusten dutela inperialismoak sortu eta egun bultzatzen duen yihadismoaren zabalkundea, izan ere, bi herrialde hauetan ere badituzte zonalde batzuk gatazkan eta bertara yihadismoa iristea saihestu nahi dute (Kaukasoan edo Xinjiang probintzian esaterako). Argi dago bi potentzia handi hauen herrien subiranotasunaren aldeko apustua guztiz taktikoa dela, orokorrean, Estatu Batuen interbentzionismo politiko-militarra gelditu nahi dute. Izan ere, yankien helburu nagusia egun mundu mailan gauzatzen ari den potentzia eskenatoki multipolarra deusezteka baita, hauek berriro mundu osoko hegemonia berreskura dezaten.

Azkenik, eskualdean ematen ari den gatazka ulertzeko ezinbestekoa da herrialde kurduaren borroka aipatzea. Daeshi kontra egiten dion indar armatu nagusia da kurduena, hau da, hegoaldeko potentzia inperialistak sortu eta eskualdeko potentzia erregionalek babestutako munstroari aurre egiten dioten bakarrenetariok dira. Herrialde kurduak aurrerapen nabarmen eta historikoak lortu ditu politikoki nahiz militarki (Rojava). Hain zuen, Konfederalismo Demokratiko bezala ezagutzen den beraien proiektu feminista ezartzeko Siria iparraldean (historikoki kurduen lurak direnak). Halaber, ezin ahaztu hainbat kontraesan ere pizten ari direla antolakunde kurduetan aliantzei eta estrategiei dagokionez. Aipatzekoa da bestalde, Turkiako gobernuak azken hilabetetan hasi duen ofentsiba militar gogorra kurduen kontra (bai lurralde turkiarretan zein irakiar nahiz siriarretan ere), izan ere, Turkiak beldur handia du gatazka amaraun honetatik kurduen aldarrikapenak indartzea. Testuinguru zail honi aurre egin behar diote beraz orain kurduak, arrisku asko dituzten arren aukera paregabeak dituztela.

4.

Ondorioak eta ildo politikoa



Behin eskenatoki honen ezaugarri konplexuak ulertuta eta bertan jokoan dauden interes erraldoiak kontuan hartuta, komeni da kontu handiz aritzea gure posizio politikoa erabakitzerakoan; izan ere, indar korrelazioak oro har, eta bereziki alor ideologikoan, gure aurkakoak baitira. Gauzak beste era batekoak izatea nahi genukeen arren, gure posizioak aurkako testuinguruetan kokatu ohi dira, etsaiaren diskurtsoak gainezka egiten digulako eta gure ahotsa entzunarazteko oso tresna gutxi dauzkagulako. Zentzu horretan, zuhurtasunez jardun behar dugu, gure asmoek ez dezaten gaizki ulerturik sortu, ez eta interpretazio gaiztorik erraztu; bestela gure kontra edo guk babesten ditugun prozesuen kontra itzuliko lirateke eta.

Hori guztia argi utzi ondoren, Siriarekiko gure jarrera, Irak eta Libiarekiko erakutsi genuena bezalaxe, mendebaldeko potentzia inperialista hegemonikoek eta euren tokian tokiko aliatuek martxan jarritako esku-hartze militarra salatzen duen jarrera da, bai esku-hartze hori agerikoa denean, bai azpijokoz egiten dutenean. Kaos hutsa hedatu duen esku-hartze honek ere, Ekialde Hurbilean mendebaldeko inperialismoak historikoki izan duen boterea sendotzea du helburu eta ez du erreparorik eskura dauzkan baliabide guztiak erabiltzeko, dela estatu izaerako aliatu faxista bat (Turkia, Saudi Arabia, Israel) dela sasi estatu izaerako erakunde faxista bat (Al Qaeda, Estatu Islamikoa) inperialismo hegemonikoaren nagusitza betikotze aldera.

Horregatik, esku-hartze kriminal hori ezin da parekatu ez legezkotasun aldetik ez ikuspegi politiko batetik Errusiak edota Iranek Siriako Errepublika Arabiarrari ematen dioten laguntza politiko eta militarrekin, bi herrialde horiek siriar gobernuaren eskaera zehatzei erantzun baitiete. Errusiari dagokionez, sinesten dugu, bere helburu taktiko eta

geopolitikoak gorabehera, gatazka politikoki konpondu nahi duela, Siriako gobernuaren beregaintasunari lehentasuna emanez; beraz, ezin dira maila berean ezarri jarrera hori eta estatubatuar nahiz europar inperialismoak bultzatutako estrategia militar eta paramilitar suntsitzaila, edozein burujabetza aztarna ezabatzeko asmoa duena. Bestalde, horrek ez du esan nahi Iraneko eta Siriako gobernuak itsu-itsuan txalotzen ari garenik edo eredu alternatibo gisa jarraituko ditugunik nolabait, noski; besterik gabe, inperialismoaren aldetik jasotzen dituzten erasoak salatzen ditugu eta herri erasotuak barne arazoak bere kabuz eta inoren eskuak gidatu gabe konpontzeko daukan eskubidea aldarrikatzen dugu.

Gainera, inperialismoaren osagai europarrak zuzenean ukitzen gaitu gu, euskal internazionalistok, zilegitasunik gabe gure izenean jokutzen duelako gureak ez diren klase interes jakin batzuei mesede egitearren.

Ildo horretan, kanpora begirako gure lehentasuna, europar burgesia handiaren helburu inperialista salatzea da, horrek kosta ahala kosta eskuratu edota mantendu nahi baititu merkatu eta lehengai estrategikoak. Aldi berean, barrura begira, ozen salatu behar dugu Europar Batasunak egiten duen "mehatxu terrorista" delakoaren erabilera, gizarte eta ekonomia arazo larriak herritarren arretatik gordetzeko balio diena. Horrela, herri langileko sektoreak beraien artean arituko dira liskarrean, salbuespen egoeran oinarritutako markorantz hurbiltzen goazen bitartean, Estatu polizialera eta Europaren izaera oligarkiko autoritarioa indartzera bidean. Beste alde batetik, salatu beharreko beste puntu bat da Europar Batasunak eta gainerako potentzia inperialistek milioika pertsona errefuxiaturen auzian daukaten erantzukizun

